

## FOLKLORE SAILAREN MINTEGIA

*Joan den irailaren 19an Eusko Ikaskuntzako Folklore sailaren mintegi itxia izan zen Herri Musikaren Txokoak Oiartzungo Ergoien auzoan duen egoitzan*

Eusko Ikaskuntzaren parte diren sail zientifikoaren artean dago Folklore saila eta honek zenbait tresna ditu folklorea ikertzen duten adituen esku hauen lana jendartera iristen laguntzeko. Horien artean daude sailak antolatzen dituen jardunaldiak eta Jentilbaratz izenarekin urtero ateratzen dituzten saileko koadernoak, non ikertzaileek beraien lanak azaltzeko artikulak argitaratzeko aukera duten.

Bileran Folklore saileko jendea eta hainbat gonbidatuk parte hartu zuten. Denek sailaren egoera eta folkloreak orokorrean gizartean sortzen duen erantzuna izan zuten aztergai.

Hasteko, Jardunaldietan izaten den parte-hartzea aztertu zuten. Denek onartu zuten Jardunaldietara jende kopuru txikia hurbiltzen dela eta beste formula batzuk erabiltzeko aukera serioa aztertu behar dela. Hala ere, balorazioak egiteko orduan kontuan hartu beharrekoa zein jende hurbiltzen den jakitea kopurua zenbatzea baino interesgarriagoa zela aipatu zen zenbait ikastarorekin konparatuz.

Hala, mahai gainean unibertsitateko kredituak eskaintzen dituzten jardunaldi eta hitzaldiak sailak antolatutakoekin alderatu ziren. Haietan publiko ugaria lortzen bada ere, bertaratzen den jende askok bere parte hartzea justifikatzen duen orria jaso orduko gaiarekiko inongo interesik azaldu gabe martxa egiten baitu, edo iPod-aren kaskoak jarri eta hitzalditik

erabat deskonektatzen baitu. Ikastaro eta tailer erako formulak ere probatu beharra zegoela esan zen gai orokorretatik konketuagoetara eta inguru-nearen errealitateari erantzungo diotenak aukeratuz. Honekin jendeak ekitaldi hauetan interes handiagoa izanik parte-hartzea ere handiagoa izan daitekeela pentsatzen da.

Landu zuten bigarren puntua saileko koadernoaren den *Jentilbaratz* urtekariari zegokiona izan zen. Bertarako kalitatezko artikulak sortzea eta lortzea zein garrantzitsua den gogoratu zuten eta horrekin batera lan horiek argitaratzeko batzuetan izaten diren arazoak gainditzeko erak bilatu behar direla esan zuten. Gai hori ilustratzeko sailak argitaratu duen azken alea jarri zuten adibide gisa.

Ondoren Eusko Entziklopedia eta Kulturaren Euskal Plana izan ziren hizketa-gai. Bi proiektu

horietan Folklore saila parte hartzen ari da eta zein egoeratan dauden gogoratu zuten.

Kulturaren Euskal Planaren kasuan Dantza Tradizionalaren arloan beste talde batzuekin batera ari da parte hartzen. Gai horren inguruan biltzen diren pertsona eta taldeei egindako enkuestan eskari nagusia izan zen Dantza Tradizionalen inguruko materiala bilduko zuen zentro bat sortu beharra, baina plana bultzatzen duen erakundeak lehenengo existitzen den ondarearen inbentario bat egin behar zela esan zuten eta gaur egun Folklore sailaren laguntzarekin inbentario hori egiten ari dira.

Lan taldearen barruan arduratuta daude lehendik ere antzeko helburua zuten inbentarioak egin ondoren ez baita ezer lortu. Gainera Eusko Jaurlaritzaren barruan izan diren aldatzeko erakundearen plan honen helburuetan eragingo dutela dirudi.



Bileran parte hartu zutenen argazkia, ezkerretik eskubira: Orkatz Arbelaitz, Josu Larrinaga, E. Xabier Dueñas, Kepa Fdez. de Larrinoa, Juan Mari Beltrán, Karlos Sánchez, Joseba Altube, Xabier Mendizabal, Joseba Zabaleta eta Oier Araolaza. HMT

# KONTZERTUAK HM Txokoan

## Udazkeneko kontzertua

2009ko urriaren 17an - 18,30tan - HM Txokoan

### MIELOTXIN (hirukotea)

Iñigo Aguerri, Ismael Yagüe, Pablo Castanera

*Mielotxin* 2003ko udan sortu zen eta 2004ko hasieran bere lehen kontzertuak eman zituen inguruko herrietan. Lehen emanaldietatik Nafarroako talde berri eta original bat zela agerian geratu zen. Ez zen urte bat pasa Nafarroako herrietako kultur teknikarien agendan leku bat lortu zuenerako, aldi berean kritika onak jasoaz.

da produkzio lanetan eta Joaquín Taboada pianistak sokazko moldaketak egiten eta *El pueblo vacío* doinuan lagundu du. Lan hau aurre-rapauso garrantzitsu bat da taldearen muinean, bertan azken urteetako lana eta tradizio musikalarekin duen konpromisoa islatzen baita, beti ere taldearen ikuspuntutik habiatuta.



2004ko maiatzean *Nafarroako Artista Gazteen Lehiaketan* lehen sari bat jaso zuen Musika Berrien arloan eta bigarren sari bat Illorako (Granada) *Eurofolk* lehiaketan. 2005ean lehen lana grabatu zuen. Hari "Empapate" izena eman zion. Urte berean Navelgaseko (Asturias) VI. Folk Lehiaketaren finalera heldu zen. 2006an Kantabriako *Escenario Prau* Lehiaketan hirugarren saria atera zuen eta irabazle izan zen Ermuko (Bizkaia) *Folkez Blai* Lehiaketan. 2007an *Mendebala-Sopuertako III. Maketen Lehiaketa* irabazi zuen. Saria MDSK diskotxearekin disko bat grabatzea zen eta Mielotxinen ibilbideko bigarren diskoa ateratzeko balio izan zuen. "Almadierra" izenpean kaleratu zen. Bertan Modesto Refojo *Pepe Vaamode Grupo* talde galiziarreko gitarrista aritu

Herri Musikaren Txokoan taldeko hiru musikari ariko dira:

- Iñigo Aguerri:** Akordeoia, kalimba eta ahotsa  
**Ismael Yagüe:** Txistua, alboka, txirula, ttun ttuna, panderoa, goilarak eta koruak  
**Pablo Castanera:** Gitarra akustikoa, espainola, gitarroia-guitarró eta koroak

Udazkeneko kontzertua HM Txokoan

### AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartean musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.  
Prezioa: 15 euro.



# ROSER OLIVÉ - PERE OLIVÉ & Companya

## Grallers de Tarragona

Grallers talde hau Vallmoll-en (El Alt Camp –Tarragona–) sortu zen 1986an. Timbal batez eta gralla batez osatutako antzinako formazio bat da eta funtzio edo beharren arabera partaide kopurua haz daiteke. Talde honen lehentasuna grillaren mundua gaur egungo ikusmoldetik aztertu eta interpretatzea da; hori, tinbrika herrikoa mantendu eta gizaldi honetako lengoai berrien freskotasunera egokituta.



**Roser Olivé.** Hamalau urterekin Jaume Vidalekin (grallersen artean azkenetakoa) gralla jotzen ikasi zuen eta bere formazioan beste grallers historiko batzuekin jo zuen. Laurogeiko hamarkadaren hasieran Tarragonako eta Reuseko *Escola de Grallers*-ak sustatu zituen helburu nagusi bezala soinu tresnari zegokion tinbrea berreskuratzea jarriaz. Argitalpen eta musika grabazio ezberdinetan hartu du parte eta gralla kromatikoen berreskuratzean eta metalezko gralla sortzen lagundu du. Gaur egun gralla eta tarota irakaslea da Catalunyako Generalitatearen *Aula de la Música Tradicional i Popular*-en eta Tarragonako *Aula de Instruments Tradicionals de l'Escola Municipal de Música*-n. Horrekin batera, Aula-ko gralla orkestra eta SO NAT grallers taldea zuzentzen ditu beste talde batzuek gain.

### EGITARUAU

1. TRICERAPSTORS *Conrad Setó, 2008*
2. TOC DE LES MATINADES *ezezaguna*
3. XIQUETS DE VALLS ANTICS *ezezaguna*
4. TOC DEL CASTELL *ezezaguna*
5. TOC DE LA PROCESSÓ *ezezaguna*
6. MOIXIGANGA DE TARRAGONA *Roser Olivé, 2000*
7. RECORD (toc d'ofertori) *Conrad Setó, 2003*
8. LOS TARRACONENSES (rigodones) *Feliu Monné, 1902*
9. SET ROSES PER A ROSER *Conrad Setó, 2006*
10. MARXA DELS FELIUS *Pere Olivé, 1900*
11. QUADERN DE GRALLA *Anton Noguera, 2003*
12. ELS SEGADORS (Himno Nacional de Catalunya)

**Pere Olivé.** Tarragonako Vila-seca-ko *Conservatori de Música Professional*-en esku-ratu zituen biolin eta perkusio klasiko eta kon-tenporaneoko espezialista titulu profesionalak. Gaztetandik erakarri du herri perkusioak eta perkusio tresna horiekin hainbat KD grabatu ditu grallers taldeekin: SO NAT taldearekin, Tarragona eta Ganxets-eko grallersekin, Baix Camp-eko grallersekin. Bestalde, antzinako eta Mediterraneoko perkusioa ikasi du besteak beste Pedro Estevan eta Andrea Piccioni maisuekin.

Gaur egun ESMUC-en perkusio historikoko goi ikasketak egiten ari da eta horrekin batera Tarragonako *Escola Municipal de Música*-n eta Catalunyako Generalitateko *Aula de Música Popular i Tradicional*-en herri musikan erabiltzen diren perkusio tresnak jotzen erakusten du.

Kontzertu honetan ariko diren musikariak zerrendan ageri direnak dira:

|                       |                |
|-----------------------|----------------|
| <b>Pere Olivé:</b>    | Timbals        |
| <b>Roser Olivé:</b>   | Gralla primera |
| <b>Sandra López:</b>  | Gralla segunda |
| <b>Àgata Fortuny:</b> | Gralla baja    |

**kontzertu honen  
laguntzaileak:**



## ALBOKARIEN TOPAKETA HERNANIN

Urteroko moduan udazkenarekin batera Albokarien Hernaniko Topaketa iritsi zen eta aurtengoan hamasei urte beteaz. Irailaren 26 eta 27an ospatu zen topaketa. Bertan Euskal Herriko bazter guztietako albokariak bildu ziren eta lehen-go urtean hil zen Eugenio Etxebarria albokari bizkaitarra omendu zuten. Horretarako, Nafarroako Albokarien Elkarteko albokariak kontzertu bat eman zuten larunbatean eta igandean kalebueltez gain, Eugenio Etxebarriaren bizitza azalduaz *Herri Musika bildumaren* barruan argitaratu den *Eugenio Etxebarria albokaria* liburua aurkeztu zuten bere egileak diren Manu Gojenola Onaindiak eta Juan Mari Beltran Argiñenak.



Nafarroako Albokarien Elkarteko taldea. HMT



Gasteizko txistulariak 1970ean. F. Askaso - HMT

## HM ESKOLAK URTE BERRIA

Urria iritsi da eta oporrak bukatu dira. Bueltan dira irakasleak eta haiekin ikasleak. Kaleetan gabiltzala entzungo ditugu ikasleak etxean bere soinu tresna gustukoenarekin maitasun gorroto lehian laster irakaslearen aurrean eta geroxeago jendartean joko duten doinu hori lantzen.

Urte honetako berrikuntza nagusia dultzaina taldearen sorkuntza da. Bertan, maila jakin bat lortu duten ikasleek taldean kalean jotzen den errepertorioa lantzeko aukera dute. Honekin ikasleei bere afizioa landuz ongi pasatzeko aukera emateaz gain azken urteetan Herri Musika Eskolak herriko ekintzetan ugaritu duen parte hartzea handitu nahi du. Honela eskolako ikasleek herri eta auzoetako festetan era aktiboago batean ongi pasatzeko aukera izango dute.

## HM JARDUNALDIAK: TXISTUA OFIZIO

Herri Musikaren Txokoak Euskal Herriko Txistularien Elkartearekin antolatutako azaroaren azken asteburuan ospatuko dira Herri Musikaren 8. Jardunaldiak. Lehendik txistularien inguruko jardunaldiak ospatu badira ere, oraingo honetan txistulari mota batetan zentratuko da: Erakundeetako Danbolintero Ofiziala.

Euskal Herrian aspaldikoa da, "ministrial" gisa, Udaletxe, Foru Aldundi eta bestelako erakunde ofizialekin lotura zuzena duen musikari mota hau.

Parte hartuko dutenen artean Kataluniako eta bertako hizlari eta musikariak entzuteko aukera izango da.



HM Eskolako irakasle-ikasleak Brionesen. HMT

### BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabetetan: bisitari kopurua: 345

Antolatutako taldeak: 10

Bisitari kopurua urri-arte: 22.322

### WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabetetan: 12.691

## HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

